

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA.

ORDAINKETEN INGURUKO INFORMAZIO KUANTITATIBO AGREGATUA, ERAKUNDEAREN ARRISKU PROFILEAN ERAGIN NABARMENA DUTEN JARDUERAK BURUTZEN DITUZTEN LANGILE ETA ZUZENDARIEN ARABERA BANAKATUA.

2019ko **ORDAINKETA** (milaka euro)

KOLEKTIBOA	Ordainketa finkoa	Ordainketa aldagarria	Gizarte Aurreikuspena	Onuradun kopurua *
ADMINISTRARI EZ EXEKUTIBOAK	707	--	--	13
ADMINISTRARI EXEKUTIBOAK	1.306	438	25	3
GOI ZUZENDARIAK	1.194	328	99	5
IDENTIFIKATUTAKO GAINERAKO LANGILEAK	2.247	482	55	17

(*) Administrari ez exekutiboen inguruko ordainsarien informazioak barne hartu du beren funtzioak utzi arte izandako karguengatik jasotakoa, eta izendapen berriengatik jasotakoa.

Ordainsari finkoa diruzkoa da batez ere, eta zerga tratamenduaren barneko ez diruzko abantailak ere jasotzen ditu, hala badagokio, espeziatiko ordainsari moduan, hala nola heriotza estaltzen duten aseguru aseguru-primak edo aseguru medikoak.

Zuhurtziazko ordainketa aldagarria

Zuhurtziazko araudi esparrua eta bertan aurreikusitako proportzionaltasun printzipioa aplikatuta, aurreko koadroan adierazitako ordainketa elementuetako batzuk geroratzearen mende, tresnen bidezko likidazioaren eta arriskuaren expost doikuntza-mekanismoen mende geratzen dira. Horrela, likidatzeko dauden zenbateko geroratuen murrizketa egin daiteke (*malus* klausula), edo dagoeneko ordaindutako zenbatekoak berreskuratu (*clawback* klausula), erakundearen emaitzen, kapital ratioen edota bestelako parametroen joera negatiboak hautemanaz gero. Murrizketa horien eraginpean egongo lirarteke honakoak: 2019an sortutako eta aurreko koadroan barne hartutako ordainketa aldagarriko 1.248 euroko zenbatekoaren parte bat, gehi Espainiako Bankuaren 2/2016 zirkularren 41. Arauaren arabera onuretan barne hartutako aurreikuspen sistemen frakzioa, zeina aurreko koadroan barne hartutako 9 mila euroko kopuruaren baliokidea den, aurreko koadroan sartua. Hori dena kontuan izanda, zuhurtziazko ordainketa aldagarriko 1.257 mila euro, ohiz kanpo sortutako haborokinak barne hartzen dituztenak, honela banatuko lirarteke:

<i>ORDAINKETA ZUHURTZIAZKO ALDAGARRIA</i>	<i>Esku-dirua</i>	<i>Tresnak (1)</i>	<i>Ez geroratua</i>	<i>Geroratua (2)</i>
<i>ADMINISTRARI EXEKUTIBOAK</i>	222	222	266	177
<i>GOI ZUZENDARIAK</i>	232	100	252	80
<i>IDENTIFIKATUTAKO GAINERAKO LANGILEAK</i>	482	--	482	--

(1) *Sozietate ez kotizatuaren izaera dela eta, erakundearen balioaren bilakaera adierazten duten ekintzak ordezkatzan dituzten tresnen bidez likidatzen da.*

(2) *Ordaintzeke, eta egotzi gabeko izaerarekin. Ez da deskonturik aplikatzen ordainketa aldagarri geroratuaren gainean, ordainketa finkoaren gaineko osagai aldagarrien kalkulurako. Administrari exekutiboez gain, akzioen ordezeko tresna gisako likidazioaren eta geroratzearen mende geratu zitzaaien goi zuzendariak funtzio korporatiboen barruan zeuden.*

Indarreko araudiaren arabera, Kutxabank Taldearen Ordainsari Politikaren Araudi Esparruak ezartzen du ordainketaren osagai osagarria ezin dela banakako ordainketa osoaren osagai finkoaren % 100 baino handiagoa izan. Hala ere, muga hori gainditu daiteke (baina osagai finkoaren % 200a ezin da inolaz ere gainditu) Akziodunen Batzorde Nagusiaren onarpenarekin, horretarako legez ezarritako prozeduraren arabera. 2019an ordainketa finkoaren gaineko ordainketa aldagarriaren ratioak ez zuen inolaz ere % 100eko gehieneko ratioa gainditu.

2019an, bestalde, aldeko expost ebaluazioaren aurretik, 2018aren aurretik sortutako ordainketa geroratuak askatu dira. Zenbatekoa 216 mila eurokoa izan da, eta ez da *malus* edo *clawback* klausulen bidezko egokitzapenik egin beharreko egoerarik gertatu. Zenbateko hori 2 administrari exekutibok eta aurreko ekitaldietan zuzendari taldeko kidea izan zen zuzendari ohi batek jaso zuten.